

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAITZ-GAUNAKO UDALA

Behin betiko onartzea 2018ko aurrekontua

Martxoaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 15.3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, behin betiko onartzen da 2018rako aurrekontu orokorra, ez baita inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu hasierako onarpena eman zion erabakiaren aurka. Hona hemen laburpena, kapituluka:

GASTUAK

I. Langile gastuak	148.588,37 euro
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	102.060,80 euro
IV Transferentzia arruntak	136700,00 euro
VI. Inbertsio errealak	12.130,76 euro
GUZTIRA	399.479,93 euro

SARRERAK

I. Zuzeneko zergak	156.500,00 euro
II Zeharkako zergak	30.000,00 euro
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	31.450,00 euro
IV Transferentzia arruntak	181.429,90 euro
V. Ondare bidezko diru sarrerak	100,00 euro
GUZTIRA	399.479,90 euro

Halaber, jendaurrean jartzen dira, dagozkion ondorioetarako, erakunde honetako plantilla eta lanpostuen zerrenda, 2017ko aurrekontu orokorrekin batera onartuak, 6/1989 Legearen, euskal funtzio publikoarenaren, 16. artikuluan xedatutakoa betez.

I. ERANSKINA

Karrerako funtzionarioak

I. Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.

Eskala: gaikuntza nazionala.

Azpieskala: Idazkaritza-kontuhartzailletza.

Administrazio egoera: aktiboan.

Taldea: A1.

Destino-osagarria: 26.

Titulazioa: Zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako, Soziologiako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomiako, edo Aktuariotza eta Finantza Zientzietako lizentziaduna.

Destinoa: Iruraiz-Gaunako udaletxea.

Hizkuntza eskakizuna: 4. Derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31.

II. Lanpostuaren izena: administraria.

Eskala: Administrazio Orokorra.

Azpieskala: Administrariak.

Administrazio egoera: hutsik.

Taldea: C1.

Destino-osagarria: 20.

Titulazioa: batxiler titulua edo teknikoa.

Destinoa: Iruraiz-Gaunako udaletxea.

Hizkuntza eskakizuna: 2. Derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31.

Lan kontratupeko langileak

Aldi baterakoa. Administrari laguntzailea.

II. ERANSKINA

Alkatea: lanaldiaren ehuneko 25eko dedikazio partziala; urtean 7.070 euroko ordainsari gordina, 14 pagatan banatuta.

Udal honen aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Azilu, 2018ko martxoaren 14a

Alkatea

SUSANA DÍAZ DE ARCAYA CUBILLO